

# planoa

- 1 – Jabekuntzaren ezaugarri nagusiak
- 2 – Jabekuntza vs. ikaskuntza
- 3 – Jabekuntzaren aroak. Aro kritikoa
- 4 – Bigarren hizkuntzaren jabekuntza
- 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak**

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Jabekuntzaren teoria

*Zerk ahalbidetzen du mintzairaren jabekuntza?*


- BEHAVIORISMOA. Berrindartzen positibo eta negatiboaren bidezko ikaste-mekanismo orokorren emaitza da.
- NATIBISMOA (INNATISMOA). Gizakiaren ekipamendu biologikoak ahalbidetzen du jabekuntza: *hizkuntza-jabekuntzarako mekanismoa*.
- INTERAKZIONISMOA. Haurraren inguru sozialak ahalbidetzen du jabekuntza hein handi batean: *hizkuntza-jabekuntzan laguntzeko sistemaren garrantzia*.

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Behaviorismoa (konduktismoa)

- B.F. Skinner

*(Verbal behavior, 1957)*



- Eskola honen arabera, hizkuntza, funtsean, ohitura bat baino ez da, beste edozein jokabideren parekoa, eta ikasketa-printzipio orokorren bidez norberegantzen dena.
- Printzipio hauek, besteak beste imitazioa, berrindartzea eta zigorra dira.



## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Behaviorismoa (konduktismoa)

- Ikasketa prozesua:
  - **Estimuluak erantzun bat** eragiten du.
  - Erantzuna zuzena bada, **berrindartze positiboa** eskaintzen zaio, finkatu dadin (xedearekin antz handiena duten haurren esaldiak/ekoizpenak saritzen dira)
  - Erantzuna ez bada zuzena, **berrindartze negatiboa** eskaintzen zaio, desagertu dadin.
- Jabekuntzaren ezaugarriak
  - Hizkuntza-portaera **ohiturak ikastean datza**.
  - **Ez da hizkuntzarako gaitasun berezirik**, hizkuntzaren garapena kanpoko eragileen araberakoa da (honen arabera, haurrek ez dute hizkuntzaz jabetzeko prozesuan eragina duen trebetasun/gaitasun berezirik edo jaiotzetiko mekanismorik. Gramatika Unibertsalik ez.).



## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

### Behaviorismoa (konduktismoa)

- Gaur egun, behaviorismoaren tesiak baztertuak dira hizkuntzalaritzan. (Chomskyren teoriak eta honek egindako kritikak teoria honen beherakada ekarri zuen)
- Zergatik? Zein ebidentzia edo argudio ikusten duzue teoria honen aurka?
  - Nikaraguako keinu hizkuntzaren sorrerak zer irakasten digu auzi honi buruz?

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Natibismosa/Innatismoa

- Behavioristek ez bezala, jaiotzetiko hipotesiaren aldekoek defendatuko dute hizkuntza ez dela ikaste-mekanismo orokorren emaitza, berezko gaitasuna baizik.
- Innatismoaren aldeko argudio batzuk (I):
  - Gizakiok baino ez dugu gaitasun berezi hau.
  - Haur guztiek hizkuntzaz erraz eta azkar jabetzen dira hizkuntzaz.
  - Inguruko inputaren kantitatea eta kalitatea gorabehera, ume guztiek abiadura berean bereganatzen dute ama hizkuntza, garapen-aro berberak igarota.

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

### Natibismosa/Innatismoa

- Innatismoaren aldeko argudio batzuk (II):
  - *Estimuluaren urritasunaren argumentua (Platonen arazoa):* Hurrei hizkuntza ikasten laguntzeko input hutsa ez dela egokia/nahikoa defendatzen duen arrazoibidea  
  
“Nola da posible gramatika bezalako gauza konplexu batez jabetzea umeari heltzen zaizkion datuak urriak eta akastunak (amaitu gabeko perpausez, hasiera faltsuez eta trabatze ugariz josia, etab.) ere direnean? Erantzuna berehala dator: jabekuntza mekanismoak berezkoa izan behar du.” (Artiagoitia 2000: 21).
  - Jabekuntza prozesuaren abiadura: gramatikalki oso konplexuak diren perpausak ekoizten ditu haurrak, jaio eta handik gutxira:
    - *itxi egin behar dut hau [erori egiten bait-a]* (B, 2;04)
    - *be(g)ittu [behien zer dekot-en nik!]* (O, 2;05)
    - *be(g)ittu [zelan e(g)in dabe-n Itsasok!]* (M, 2;09)

# Natibismoa/Innatismoa

- Innatismoaren aldeko argudio batzuk (III).
- Haurrei gehienetan ez zaizkie haien esaldien gramatikaltasunari buruzko zuzenketarik egiten (gogoratu honi buruz gorago aipatutakoa) edo umeak ez dira ohartu ere egiten




## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

- Innatismoaren aldeko argudio batzuk (IV)
  - Sekula egiten ez diren gramatika-akatsak.
    - Ezeztapena:
      - *Sagarra jan du* ® *Ez du sagarra jan*
      - Baina EZ: *Jan duen sagarra* ® *Ez duen sagarra jan*
    - Galderak:
      - *Zure lagunak nire ahizparekin ikusi dituzu* → *Nor ikusi duzu nire ahizparekin?*
      - Baina EZ: *Zure lagunak eta nire ahizpa ikusi dituzu* ® *Nor ikusi duzu eta nire ahizpa?*

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Natibismoa/Innatismoa

- **Ondorioa:**
- *Hizkuntza-jabekuntzaren uniformetasuna eta azkartasuna*, haurrek txikitatik duten *hizkuntza-jakintzaren konplexutasuna* eta *hizkuntzaren izaera sortailea* azaltzeko: hizkuntzak jaiotzetikoa izan behar du (gizakiek soilik duten gaitasun kognitiboa).
- Hizkuntza-gaitasuna sortzezkoa da, eta ingurugiroak biologikoki aurretik determinatua den prozesu bat ahalbidetu besterik ez du egiten: *hizkuntzaz jabetzeko mekanismoa*.



H: hizkuntza jakin bat (euskara, alemana, txinera, etab.)

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Interakzionismoa

- Haurrak inguruarekin elkarrekintzan garatzen du hizkuntza. Hizkuntza-jabekuntzan haurren eta zaintzailearen arteko interakzioak garrantzi bizia du.
- “Hizkuntzaren jabekuntza, funtsean, gizartean erabiltzen diren diskurtso moten jabekuntza da. Txikitatik, haurrak, bere inguru sozialean erabiltzen diren testu-mota ezberdinekin egiten du topo, eta hizkuntzaren hainbat erabilera “simple” ikasten dituzte aurrena: etiketatu edo objektuei izena jarri, deskribatu... eta poliki-poliki, baita ere, kontatu, azaldu, argudiatu.” (De Weck 2000)

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

### Interakzionismoa

- Inguru sozialak (gurasoek, zehazki) bere hitz egiteko modua moldatu egiten du haurraren garapenaren arabera: *motheresse, maternés, ama erako hizkuntza/haur hizkuntza* (tonua, abiadura mantsoagoa, etengabeko errepikapenak, hiztegi egokitua...).
- Honek haurra elkarrizketan modu aktiboan parte hartzera bultzatzen du, haurra hizkuntzaren izaera komunikatiboaz jabetzen baita.
- Haurren komunikatzeko gaitasuna hobetu ahala, zaintzaileen hizkuntzak forma konplexuagoak erabiliko ditu. Beraz, zaintzaileek haurra sortzen ari den hizkuntza-sistemari laguntzen edo eusten dio.
- Interakzionismoak elkarrekintza horien eta haurraren hizkuntza-garapenaen arteko loturari garrantzia ematen diote: haurrei zuzendutako hizketa bereziki prestatua legoke hizkuntza ikasteko prozesua bultzatzeko.

## 4. 5 – Jabekuntza azaltzen: teoria ezberdinak

# Interakzionismoa

- Interakzionista sozialek, oro har, ez dute ukatzen hizkuntza-jabekuntzarako mekanismoren bat (language acquisition device, LAD) dagoenik, baina ez dute uste horrenbesteko garrantzia duenik; haurren hizkuntza-jabekuntza ulertzeko garrantzitsuagoa iruditzen zaie hizkuntza-jabekuntza laguntzeko sistema (language acquisition support system, LASS).
- Interakzionista sozialek ez datoz bat natibistek ematen duten estimuluen urritasunaren argumentuarekin. (gurasoek haurrei gramatika era formal batan erakusten ez badute ere, egiten dizkieten zuzenketak garrantzitsuak lirateke).
- Natibistek syntaxiaz eta morfologiaz jabetzeari garrantzia eman diete, baina beste arlo batzuetan (adibidez, hiztegiaren garapenean) egindako ikerketa batzuen arabera haurrek entzuten dutenaren eta erabiltzen dutenaren arteko lotura nabarmendu dute (baina honek bakarrik ez lituzke azalduko hizkuntza guztietan aurkitzen ditugun aditzen egitura semantiko/sintaktikoen propietateak, adibidez).

# Gaia sakontzeko

- Artiagoitia, X., 2000, *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 19-34.
- Barreña, A, M.J. Ezeizabarrena, I. García & A. Petuya, 2007, “Euskararen garapena lehen hizkuntza legez eta morfologiaren agerrera mailakatuaren inguruan”, *Uztaro* 60: 63-83.
- Ik. Aurkezpenak egiteko emandako erreferentziak, e-gelan.